



Mungiako Udalak eta Diz Diz elkarteak 60 urtetik gorako emakumeei telefono mugikorraren erabilera errazteko ikastaroa antolatu dute

- Ekimen hau, adineko pertsonei beharrezko tresnak emateko, eten digitala gainditu ahal dezaten, udal helburuaren barruan kokatzen da.
- Udalak antzeko tailer gehiago jarriko ditu martxan laster, kolektibo berari eta behar berdinak dituzten beste batzuei zuzenduak.

Mungia, 2023ko urriaren 24a. Mungiako Udalak adineko pertsonei informazioa eskuratzeko aukera erraztea eta kasu askotan dagoen eten digitala gainditzeko beharrezko tresnak ematea nahi du. Horretarako, azken egunotan ikastaro bat egin da, Udalak antolatuta eta Diz Diz Emakumeen Elkartearekin elkarlanean, telefono mugikorra eta bere aplikazioak erabiltzeko. Ikastaro horretan 20 emakumek parte hartu dute, 60 urtetik gorakoek batez ere.

Ekimen hau joan den ekainean Udalak adineko mungiarrentzako antolatu zituen ikastaroek izan zuten harrera onaren emaitza da. Laster, tailer gehiago egingo dira, kolektibo beraren eta antzeko premiak dituzten beste batzuen eten digitala murrizteko.

Bakarne Egia alkateordeak azpimarratu duenez, "ikastaro hauen bidez, emakumeek beren egunerokoan teknologiak inplementatzeko helburua lortu nahi da, haien erabilera erraztuz eta sustatuz, eta haien ahalduntzean aurrera egitea ahalbidetuz. Berdintasun Planean jasotako lehentasunetako bat da, eten digitalak genero-osagai garrantzitsua baitu".

Izan ere, asko dira dinamizazio digitalaren bidez lor ditzaketen abantailak, hala nola gizarte- eta familia-komunikazio handiagoa eta hobea, segurtasun eta autonomia handiagoa, izapidetze elektronikoko zerbitzu espezifikagoetarako sarbidea eta erabilera hobetzea, bai eta onura ludikoagoak ere, hala nola ikaskuntza autonomoa, kultura-ondasunetarako sarbidea edo dibertsio digitala.

Bestalde, Diz Diz elkarteko presidente Mertxe Ibarretzek nabarmendu duenez, elkarteak bazkideen arteko eten digitala antzeman du, eta "tresna berrien ezagutzarekin eta praktikarekin komunikazio sozial handiagoa, independentzia handiagoa eta seguruago senti gaitzkeela uste dugu. Izapide asko digitalki kontrolatzen ez baditugu, eremu batzuetan baztertuta geratzeko arriskua dugu, eta, horregatik, mugikorra, tableta, ordenagailua... erabili behar ditugu, bakoitzaren interesen eta beharren arabera".